

P6 Ariketa. ERRITMO ARIKETAK

Letra etzana duten hitzak irakurketa orokorraren abiadura baino azkarrago irakurri behar dira. Gidoiak dituzten hitzak testu orokorraren abidura baino astiroago irakurri behar dira, baina lotuta (silaba-ka irakurri gabe). Abiadura aldaketak dira ahozko narrazioari erritmo ona ematen diotenak.

A) MAGAZINE

Arratsalde on. *Gaurko programa hastera doa* eta datu kezkarri bat azpimarratuko nahiko genuke. // Jada ha-ma-hi-ru dira aurten hil-da-ko lan-gi-leak; *azkena*, gaur bertan hil da, Murgan. Lau me-tro-tik be-he-ra erori da, birziklatze enpresa batean. Jone Gibeldi STEILASeko kideak aurten egondako lan is-tri-puak izan ditu gogoan *gaur egin duen agerraldian*. Martxoaren 3a lan baldin-tza dui-nen aldeko eguna izango dela esan du.

B) BAKARRIZKETA INFORMALA

Zo-ra-ga-rri-a da. Inoiz ez dut horrelakorik sentitu. *Askotan proposatu didate*: hara joan behar duzula, si-nes-te-zi-na dela. *Baina nik kasurik ere ez*, gaur arte. Be-ne-tan harri-tu-ta nago.

C) ELKARRIZKETA FIKZIOAN

-Txerri hori! /// Hil-da e-gon nin-te-ke-en. // *Noiz deskargatu zenuen?*

-Bart. / *Begira*, // mundua bi ka-te-go-ri-a-tan ba-na-tzen da: *errebolberra kargatuta dutenak* eta lu-rra zu-la-tzen du-te-nak. Zuk / lurra zulatzen duzu.

Il buono, il brutto, il cattivo (1966). Sergio Leone